



UBERA – KANPANZAR (5. etapa)

- **0:00** Uberako plazatik irten eta GI-2632 errepidea jarraituko dugu Elgeta aldera. Ehun bat metrora gure ezkerretara Bidebitarte markatzen duen seinalea jarraituko dugu Isugarra auzora daroian pistatik. Uberagoena baserriaren aurretik pasatu eta porlanezko pistatik jarraituko dugu.

Aurreko etapan ikusitako **14. mugarrria, "Jalotza-basoa"**, Elgetako errepidearen baztarrarian, eskuman daukagun pinudiaren gaineko aldean dago.

- Lehenengo bidegurutzean, ezkerretara doan Egurbide Zahar baserriko bidea laga eta aurrera jarraituko dugu, Sesto erreka gure ezkerrean daramagula.
- **0:10** Bigarren bidegurutzean, eskuman iturri bat dago; guk ezkerretara joko dugu (hego aldera), zubitxo batetik Sesto erreka zeharkatu eta bidean aurrera jarraituko dugu Urrejolaegi zaharra baserriaren bidetik.
- Bideari jarraituz, berehala kate baten aurrean hiru bidez osatutako gurutze batera iritsiko gara, non ezkerreko bidea hartu eta errekatxoaren beste aldera pasatuko garen. Bide hau zuzen-zuzen jarraituko dugu aldapan gora (hego aldera) eta txabola baten azpi aldetik pasatuko gara. Gure eskuman Urrejolaegi zaharra baserria ikusiko dugu.
- **0:20** Txabolatik metro batzuk aurrerago, orain dela gutxi botatako pinudi batean gora joko dugu eta hurrengo bidegurutzean ezkerreko hartu, hegoalderantz. Gorantz jarraituko dugu bidetik zati luzean eta Egurbide aldetik datorren bidearekin bat egin ondoren, aurrerago tentsio altuko kable batzuen azpira helduko gara.
- **0:35** Kable azpian dagoen bidegurutzean zuzen jarraituko dugu eskumako bidetik, mendebalderantz, eta Dawson-zipres basoaren barrenetik erreka-zulora iritsiko gara.
- Erreka zeharkatu eta gurdi bide zabalago batekin topatuko gara. Aurreratsua ezker aldeko bidea hartu eta hemendik aurrera, nahiko garbi ikusten den bide batetik, eta denbora guztian saguka (eseak eginaz), mendi maldan gora egingo dugu pixka bat mendebalderantz.
- Gurdi bideak igotzeari utzi eta lautadatxo batera heltzen denean, berehala eskumara, mendebaldera, pinudi gazte batean sartzen den bidexka hartuko dugu. Ota artean jarraituko dugu bide hori, eta une batean 180ºko kurba egiten duen bide zabalago bat aurkituko dugu. Ezkerretara eta apur bat gorantz egiten duen bidea hartuko dugu eta

berriro beste bide batekin bat egingo dogu, hemen ere ezker aldetik gorutz jarraituz, mendebalderantz.

- **0:55** Bidean gora goazela beste bidegurutze baten Ur kontsorzioak jarritako bi mugarri topatuko ditugu eta hortik aurrera Elgetara ura eramateko erabiltzen den bidea jarraituko dugu (mendebaldera), berehala Uraixa baserriaren aurrean pista batekin bat egin arte.
- Baserri aurrean, ondotik pasatzen den pista gure ezkerretara hartuko dugu, PR markak jarraituz hego aldera, gorantz, Asentzioko putzu ondora iritsi arte.
- **1:00** Asentzioko ermitaren aurrera iritsiko gara, eta hurrengo mugarri ederra ikustera joateko toki honetatik joan-etorria egin beharko dugu. Ermitaren azpiko aldetik Bergara aldera doan pista hartu (ekialdera) eta aurrera segituko dugu, lau-lau.
- **1:05** Une batean pista zabala laga eta gure eskuman, alanbre itxitura batekin agertzen den bidetxo bat hartu beharko dugu. Aurrera eginez, pagadi txiki baten gaineko aldetik pasatuko gara eta 50 bat metrotara garbigune txiki batera helduko gara. Gure aurrealdean azaltzen den pinu gazteen sail baten eskumako bazterretik gorantz jo beharko dugu, hegoalderantz, hesi baten aldemenetik goiko mendi gaina hartu arte.
- Gain honetan, bidegurutzean, kare-harrizko sail arteko mugarri bat dago, eta mendebaldera doan bidea jarraituz, 10 bat metro aurrerago, gure ezkerrealdean, sastraka artean ezkutuan, mugarri handi bat topatuko dugu.

13. mugarría, "Asentzio" izenekoa; mugarri ederra da, harlandu laukizuzena; "E" eta "B" letrak dauzka eta "11" zenbakia.

Zenbaki honek ez dauka zerikusirik egun egiten den zenbaketarekin, baina garai batean —1928ra arte— Angiozar eta Ubera Elgeta izan ziren eta, seguruenetik, ordukoa da zenbaki hori.

- **1:15** Mugarritik mendebalderantz, apur bat gorantz eginaz, bidea jarraituko dugu, Artixagain tontorraren ingurura. Inguru hau nahiko zikina dago eta antzeman daitezkeen bidezidorretatik tontor ezkerrekaldetik pinuditik aurrera jarraituko dugu.
- **1:20** Pinudian zehar, tontor ezkerrekaldetik bidezidorra jarraituz, hune baten hesi baten gainetik pasatu (marka gorriak dare pinu baten), eta beherantz egingo dugu pinudian zehar, beheko bidea hartu eta Asentziara berrix irtetzeko.
- **1:30** Asentzioko ermita gure eskumatara utzita, jarraitu pixkat aurrera eta ezkerreko zelai ertzean dagoen erromara zeharkatuko dogu eta hegoalderantz zelaian behera doan burdi bidea jarraitu, Jauregikoetxetxo ("Jarikotxo") baserriraino.
- **1:35** Jauregitxoko baserriaren aurrera iritsiko gara, Angiozartik Elgetara doan GI-3360 errepidearen kontra. Hemen Elgetarantz hartuko dugu, gorantz, errepide bazterretik eta 150 bat metro egin ondoren, errepidea laga eta gure ezkerretara sartuko gara,

beherako joera daraman bide batetik, aurrekaldean Galarraga baserriak begi bistan ditugula, eta harantzago Zabaleta baserriak.

- Behera jarraituko dugu, gure eskumara doiazen bideeri kaso egin barik, eta landatu berri dagoen sail bat agertu arte gure azpikaldean. Ezkerretik datorren bide baten bidegurutzean, hor beheko intxaur sail horretan, gure ezkerrekaldean lizar batetik 10 bat metrotara, mugarri bat aurkituko dugu.

12. mugarria, "Iturutz", harlandu errektangularra, E eta V letrak dauzkana. Mugarri berria da norabidea ere ematen diguna.

- Berriz ere mugarrira joateko utzi dugun bidera igoko gara eta bukaera arte jarraitu aurrera, mendebalderantz, lautada bateraino. Aurrean pinudi barrura sartzen dan bidetik jarraituko dugu zelai baten kontra amaitu arte. Hemen gure ezkerretik beherantz egin bihar dugu, muga bat jeitsi, eta elauntza batzuen inguruan, alanbre hesi gainetik pasatu gure eskumamo zelaira irtetzeko.
- Zelai barrenetik aurrera jarraitu eta Galarraga baserriaren parera iritsi aurretik, zelaien arteko bizkartxo bat dagoen lekuan (lehenago alanbre hesia izandako tokian), beheratxoago, bi bideen artean, beste mugarri bat aurkituko dugu, belarrak ezkutatuta.

11. mugarria, "Etxaurria", harlandu errektangularra, "E" eta "V" letrak dauzkana, norabidea ere ematen diguna.

- **2:00** Mugarri honen bai gainekaldeko bidetik, bai azpikaldeko bidetik, aurrera jarraitu eta erromara bat zeharkatuz Galarraga etxetxo baserriaren bidera irtengo gara. Aurrera jarraitu mendebalderantz eta laster Galarraga baserrien porlanezko bidera irtengo gara. Hemen eskumara jarraitu (mendebaldera) eta gorantz egingo dugu. Iturri eta alberga bat pasatu ondoren (Larrakun inguruan), 50 bat metro aurrerago dagoen errebueltan, pistaren ezker aldean eta pago artean hurrengo mugarria aurkituko dugu, zeharo etzanda.

10. mugarria, "Otegi", harlandu errektangularra, "E" eta "V" letrak dauzkana, norabidea ere ematen diguna.

- **2:10** Bidean jarraitu eta aurrerago, pistak beherantz hartzen duen tokian, txabola batera doan bide bat hartuko dugu, gure eskumara, gorantz. "Solo zaharko" txabola aldamenetik pasatu, aurrera jarraitu gorantz, eta hurrengo bide gurutzean aurrera jarraituko dugu (mendebalderantz), eskuma aldera beste bide bat lagata. Hurrengo bidegurutzean, berriz, eskumarantz hartuko dugu, aldapan gora izei artean, bide aldapatsu batetik. Hau bukatzen denean, goian ikusten den errepiderantz egingo dugu aldapa piko batetik zabuka (S-ak eginaz) errepideko petril ondora heltzeko.
- **2:30** Errepidera iritsitakoan, Kanpanzartik Elgetara doan GI-2639 errepidean berrehun bat metro egingo ditugu Elgetako norabidean (iparraldera) eta ezkerretara garbi ageri den pista bat, PR batek markatutakoa, hartuko dugu.

- **2:35** Pista hau jarraituz, erromara bat pasatu ondoren, lepo batera eta bidegurutzera iritsiko gara, eta gure aurrian, pinudi bazterrean, mugarri handi bat ikusiko dugu.

9. mugarria, "Burdinoaga" izenekoa, berria da eta nahiko altua; eta berak dioenez 1983an berriztua da; hori bai, guztia antzinako grafiarekin idatzia. Mugarri hau da Bizkaiarekin dugun lehenengoa, Elorrio-Bergara-Elgeta herrien artekoa ere bada.

- **2:40** Mugarri hori eta gas seinalizazio baten artean GR (gorri-zuri-laranja) markatutako bide bat hego alderantz jarraituko dugu, bide nahiko lau batetik. Aurrerago, pagadi bat baino lehentsuago GR-a jarraituko dugu beherantz, gure eskuma aldera (hego-mendebaldera), eta GR bidearen erreferentzia galtzeke, eta mendi bizkarrean dagoen bidegurutze baten gure ezkerrean (ekialdera) joko dugu, Sagasta baserriaren bidetik.
- **2:55** Sagasta baserriaren osterara helduko gara eta gure eskumatik, mendebalderantz irteten den bidea hartuko dugu, 50 bat metro jarraitu, eta alanbre itxitura bat pasatu ondoren, beste 25 bat metrotara hormigoizko mugarri txiki bat topatuko dugu bide bazterrean.

8. mugarria, "Sagasta", gaur egun hormigoizko mugarri txiki bat, Diputazioaren plaka batekin (M7 bezala izendatua).

Lehenengo harrizko mugarri zaharra, basoan behera 30 bat metro joanda dago: Lurrean etzanda, 30x30cm eta 1,20mt. luzera daukana, eta "Elorrio", "Elgeta" eta "1864" inskripzioarekin. Botatuko harri hau da 1939ko aktan aktan azaltzen den mugarria.

- **3:05** Sagasta baserrira berriro bueltatuko gara, karobia, armarría eta iturria ere badituen baserri ederrera. Porlanezko bidetik jarraituko dugu ekialdera, errepide aldera, zelai baten gainekaldetik. Aurrean dagoen pinudira heltzen garenean, bidegurutze baten, pista laga eta gure eskumara (mendebaldera) sartuko gara bide batetik behera, pagadi baten aldamenetik beherantz jarraitzeko.
- Beherantz eta zabuka (S-ak eginaz) aldapa gogorak jaitsi, eta une baten errekatxo baten inguruan, pagadi eder bat aurrean daukagula, pista laga eta eskuma aldera jo bihar dugu, errekatxo gainetik pasa eta lau-lau dagoen bide bat jarraitu pagadian. Pagadia bukatzen den tokian (eskumatara behera jotako txabola baten hormak dare) ezkerretara beherantz jo eta pagadi barreneraino jo beharko dugu hurrengo mugarria aurkitzeko, pagadiaren eskuma aldeko ertzean eta hormigoizko beste mugarri batean aldamenean.

7. mugarria, Solobarren. Mugarri txiki hau harrizkoa da eta jurguaren norabidea markatzen du gaineko aldean. Garbi dago padari eta pinudi arteko marrak Bergara-Elorrio jurgua markatzen duela, goiko txabolaren ondotik Sagastako mugarrirantz. Mugarri hau ez da azaltzen 1939ko aktan.

- **3:20** Mugarritik behera joko dugu lehen lagatako pistara, Kortazar erreka ondoan. Errekatxoa gurutzatu eta beste aldean pinudi barrura sartzen den bidea jarraitu beharko dugu, hego alderantz gorantzian. Bidea amaitzen denean, beste pinudi garbi

baten sartu ezker aldetik eta aldapa gora antzean zeharkatuz, beste bide bat aurkituko dugu.

- Pinudian dagoen bide hau jarraitu beherantz (hegoaldera) beste errekatxo baten ertzeraino eta hemen goitik behera doan beste bide batekin topo egingo dugu. Jarraitu bide hau beherantz (mendebaldera) erreka ezker aldean dugularik. Eroritako txabola zahar baten ondotik pasatuko gara, eta hurrengo bidegurutzean ezkerrera jo (hego aldera), errekatxoa zeharkatu, eta igotzen hasiko gara berriz ere.
- **3:35** Erreka pasatu eta 25 bat metrora, ezkerretara, aldapa oso gogorra hartuko dugu. Bertatik gora egingo dugu, lehenengo eki aldera eta beste bide batekin bat egin ondoren hego alderantz. Aurrera jarraitu eta hune batean bidea, egiten duen zabal une batean, ia desagertu egiten da. Ezker aldera doa bidea utzi eta eskumatara doan bidea hartuko dugu. 20 bat mt. Aurrerago, bidea ixten danian, gure ezkerrean dagoen alanbre hesi bateraino joko dugu.
- Ahal izanez gero, hesia gaineratik pasatu eta bestekaldeko sailean, goratsuago, dagoen pista hartuko dogu, eta pista hori gorutz jarraituz GI-2639 errepidera iritsiko gara (Kanpanzartik Elgetara doana), errebuelta handi baten.
Bestela, hesiaren kontra jarraitu biharko dogu aldapan gorutz, berdin berdin errepidera irten arte.
- **3:50** Errepidera irteten garen tokian bertan, errepidearen beste aldean, gainekaldeko mendi bizkarrean dago mugarri handi bat. Bertara joateko, ezkerretara (Elgetarantz) egin 20 bat metro, errepidea zeharkatu, mugia igo eta errepide gainekaldetik jarraitu beharko dugu harria topatu arte.

6. mugarria, "Salsondo-buru"; harrizko mugarri handia, forma irregularra duena, Bizkaia eta Gipuzkoa artekoa hau ere, Diputazioaren plaka batekin.

- **3:55** GI-2639 errepideari jarraituz Kanpanzar alderantz (eskuma aldera, hegoaldera), bide bazterretik jarraituko dogu 70 bat mt inguru, eta gure ezkerretik basoan gora doian bidea hartuko dogu.

Hemen, errepide bazterretik beste 100bat mt. aurrera eginez gero, errebuelta baten gure eskumara, padari baten barrenian, beste mugarri bat ikusiko dugu:

Mugarri hau ("Olaoste") harri tente bat da, forma irregularra daukana, eta jurguaren norabidea markatzen du gaineko aldean.

Garbi dago Bergara-Elorrio jurgua markatzen duela, baina ez da azaltzen 1939ko aktan.

- Errepidetik gora, basoko bide batetik jarraituko dugu hegoalderantz, sakon bat eta bidegurutze bat pasatu, eta zeharretara jarraitu basoan hegoalderantz, une baten baso bidea amait arte, gure aurrean eta gainekaldean izei (abeto) batzuk ikusten dittugula.

Hemen ere, gure bidetik 50bat mt. beherago, basoan, beste mugarri bat ikusiko dugu:

Mugarri hau ("Basako") harri tente haundi bat da, zati bat apurtuta daukana, forma irregularrekoa, eta jurguaren norabidea markatzen du gaineko aldean.

Aurrekoa bezala, garbi dago Bergara-Elorrio jurgua markatzen duela, baina ez da azaltzen 1939ko aktan.

- Bidea amaitzen dan toki hontan, pinudian gora jo biharko dogu gainekaldean doian beste bide bateraino. Bide hontan gure ezkerrean jo ikusten dan izei sailaren ertzeraino, eta izei baso horren baztarretik gora jarraitu mendi bizkarrera heldu arte, izei baso horren gainekaldian. Mendi bizkarrean, hurrengo mugarrira aurkituko dogu.

5. mugarrira, "Ansola" izenekoa; harrizko mugarrira tente bat, forma irregularra duena, Bizkaia eta Gipuzkoa artekoa hau ere, Diputazioaren plaka batekin. Mugarrira hau mendi bizkarrean bertan dago, bi pinudi sail ezberdinen tartean.

- **4:30** Mendi bizkarretik gora jarraitu bidetxur batetik ekialderantz beste bide bat aurkitu arte, zeharka doiana, eta eskuma aldera jarraitu hegoalderantz. Kañueta mendi magalean jarraituko dugu zeharka mendi bizkarrera heldu eta goitik behera datorren bide garbi batekin bat egin arte.
- Bide hau eskumara jarraitu beherantz (hegoaldera) eta laster Sustraitza aldetik datorren GR markatutako bidearekin bat egingo du. Beherantz jarraituz Kanpanzar aldera eramango gaitu. Azpiko aldean Lasarte baserria eta San Miguel del Monteko bidea ikusiko ditugu.
- Bidea jarraituz, gure ezkerrean eukalipto sail bat dugu, eta Kanpanzarrera heltzeko azkeneko jaitsiera hasten dan inguruan, pinu handi batetik gertu eta urki baten barrenean, bidearen eskuma aldeko mugaren gainean, hormigoizko bi mugarrira ikusiko ditugu.

4. mugarrira, "Kanpanzar" izenekoa; hormigoizko mugarrira, Bizkaia eta Gipuzkoa artekoa hau ere, Diputazioaren plaka batekin.

- **4:45** Galbiderik gabeko pistan jarraituta, errepidera irtengo gara eta Kanpanzar tabernaren ostean, Zelaitxueta baserriaren bidea erakusten digun geziaren parean aurkituko dugu gaurko azken harrikotea.

3. mugarrira, "Kanpanzar" izenekoa; harlandu laukizuzena, jurguaren norabidea ere ematen diguna eta Bizkaia eta Gipuzkoa artekoa. Hau ere Diputazioaren plaka batekin.

Kuriositate bezala, berak ez du Bergara inon jartzen, paraje hauek Angiozar osoa bezala, Elgeta zirenean jarritakoa baita.

- **4:50** Mugarrira honen ondoan, Kanpanzarren, gaurko ibilaldia amaituko dugu.

Bergaran, 2013ko maiatzak 5